

KSIgune deialdia

KONEXIO PROIEKTUAK

EUSKAL GOI MAILAKO HEZKUNTZA ETA KULTURA ETA SORMEN SEKTOREA

KSIgunea Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien klusterra da, eta Kulturaren eta sormenaren sektoreen premiei lotutako goi mailako prestakuntzaren, ikerketaren, berrikuntzaren eta transferentziaren esparruko jarduerak garatzeko tresna estrategiko modura sortu zuen.

Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa eta Kultura Sailburuordetzak engaiatuta daude helburu horrekin, eta, horregatik, KSIgunek, Euskampus Fundazioaren bitartez, deialdi hau bezalako programak antolatzen ditu.

KSIgune “**Konexio Proiektuak**” deialdiak goi mailako hezkuntzaren eta kultura eta sormen sektoreen arteko konexioa eta lankidetzak bultzatu nahi ditu bere eragileekin bitartez, eta horretarako, helburu hauek ditu: Kulturaren eta sormenaren euskal ekosistemaren nodoen aberastasuna nabarmentzea; haien arteko lankidetzak laguntzea (nazioartean eta beste sektore batzuekin), eta gizartean duten eragina indartzea.

1. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen bitartez **ikerketa aplikatua eta garapen esperimentalak** bultzatu nahi dira, **EAEko kultura eta sormen sektoreetako erakundeetan aplikatuko diren EAEko goi mailako hezkuntzako baterako proiektuak**¹ finantzatzuz. Proiektu horiek ekarpen positiboa egin behar diete **erronka sektoriale** –sormen eta kultura industrietako sektore bati edo gehiagori eragiten dieten erronkei, alegia– eta/edo EAEko hiru trantsizioen erronka globalei. I. eranskinean jaso dira erronken edo ikerketa esparru posibleen adibide batzuk.

2. ERAKUNDE ONURADUNAK

Deialdia KSIguneako prestakuntza eta ikerketa programei eta EAEko kultura eta sormen industrietako enpresei eta beste erakunde batzuei zuzenduta dago.

Gutxienez bi erakunde laguntzaile behar dira. Horietako bat, nahitaez, KSIgunen² integratutako ikastegi bat izango da, eta, bestea, EAEko kultura eta sormen industrien barruko enpresa edo erakunde bat. Erakundeak partaidetza publikoa badu, partaidetza hori % 50etik beherakoa izan beharko da deialdian parte hartu ahal izateko.

¹ EAEko kultura eta sormen sektoreak:

Kultura industriak: Arte eszenikoak; musika; kultura ondarea; ikusizko arteak; artisautza; liburua eta prentsa; ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Sormen industriak: Bideojokoak eta beste eduki digital batzuk; diseinua (produktuarena, grafikoa, barnealdeko diseinua, hirikoa); arkitektura; moda; gastronomia (sorkuntza eta diseinua); publizitatea; hizkuntzaren industriak.

² KSIgune zentroak hemen daude ikusgai: <https://www.ksigune.eus/>

Erakunde eskatzaileak aplikatuko du proiektua, eta haren ardura izango da proiektua koordinatzea.

Horrez gain, hirugarren bazkide gisa bat egin ahal izango dute EAEko beste eragile akademiko edo sektorial batzuek, baita Akitania Berrikoek edo Nafarroakoek ere, lurralde horiek lankidetzaz ibilbide luzea baitute Euroeskualdearen testuinguruan. Erakunde eskatzailea eta bazkide akademiko nagusia, nolanahi ere, EAEkoak izango dira beti.

3. PROIEKTUEN TIPOLOGIA

1. mota Gradu Amaierako Lanak (GRAL), Master Amaierako Lanak (MAL) eta Irakasgaiko lan kolektiboak

Era horretako proiektuek proiektuan parte hartzen duten irakasleen inplikazio maila handia izan beharko dute, eta haien ikastegiak ezinbestean aitortu beharko du ezagutzaren transferentzia.

Gauzatzea: GRALak eta MALak 2022an hasi beharko dira eta 2022/2023 ikasturtearen testuinguruan egin beharko dira. Irakasgaiko lan kolektiboak 2022/2023 ikasturtean egin beharko dira.

2. mota Ikertaldean lanak

Ikertaldean lanak 2022an hasi beharko dira, eta gehienez 6 hilabeteko iraupena izan beharko dute.

Finantzatzeko diren bi proiektu motek ekarpena edo aurrerapena egin beharko dute *1. eranskinean* zerrendatutako erronkei dagokienez.

4. DEIALDIAREN BALIABIDEAK

Ekarpen ekonomikoa

Deialdiaren zenbateko ekonomikoa, guztira, 120.000 eurokoa da.

Deialdi honen barruan proiektuei emango zaien finantzaketak aurrekontu osoaren edo aurrekontu horren ehuneko baten arabera izango da, proiektuak zenbateko puntuazioa lortu duen, betiere gutxienezko puntuazioa gaindituz gero (informazio gehiago hemen: *7. atala. Balorazio irizpideak*). Ekarpene hori proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko erabili ahal izango da: langileak, materiala, argitalpenak, dietak eta joan-etorriak.

Proiektuei gehienez honako ekarpen hau esleitu ahal izango zaie:

1. mota Gradu Amaierako Lanak, Master Amaierako Lanak eta Irakasgaiko lanak: 5.000 euros
2. mota Ikertaldean lanak: 15.000 euros

Proiektu mota bakoitzari (1. mota eta 2. mota) bideratutako guztizko finantzaketa 60.000 eurokoa da.

Finantzaketa lerro horiek agortzen doazen heinean itxiko dira. Lerro baten edo batzuen finantzaketa erabat esleitu gabe geratzen bada, kopuru hori beste lerroen artean banatu ahal izango da, irizpide proportzionalari jarraikiz³.

³Finantzaketaren banaketa, proiektuen tipologiaren arabera:

- Finantzaketaren % 50 1. motako (GRAL, MAL, Irakasgaia) proiektuetarako da.

Finantzaketa ez da 15.000 eurotik gorakoa izango erakunde eskatzaile bakoitzeko. Ordainketa hitzarmena sinatu eta hilabeteko epean egingo da.

Erakunde eskatzailea (proiektua aplikatuko duen erakundea) arduratuko da aurrekontua banatzeaz, bai eta proiektuaren justifikazioa ekonomikoa presentatzeaz ere.

Laguntza eta komunitatea

Proiektuetan parte hartzen dutenek Euskampus Fundazioaren laguntza estrategikoa eta teknikoa izango dute.

Saio birtualak edo aurrez aurrekoak egingo dira, eta sarbidea izango dute [Gune+](https://gunedigital.eus/) plataforma birtualera (<https://gunedigital.eus/>).

Emaizak KSIgunek dituen barneko eta hedapen publikoko kanaletatik zabalduko dira.

5. DEIALDIAREN EPEAK

Eskabidea: Deialdia zabalik egongo da argitaratzen den egunetik 2022ko irailaren 30era arte, edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak helburu horretara bideratzen duten diru kopurua (120.000 euro) agortu arte.

Ebazpena: Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa interesdunei jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Laguntza onartu ondoren, lankidetzat hitzarmen bat formalizatuko da erakunde eskatzailearekin.

Justifikazioa: Proiektua koordinatzen duen erakundeak hilabete izango du justifikazioari buruzko dokumentazioa aurkezteko, proiektua amaitzen denetik aurrera zenbatuta (eskabidean emandako informazioaren arabera). Justifikazioaz gain, proiektuaren garapenaren berri eman beharko dute 2022ko abenduan.

6. ESKABIDEA

Eskabideak [Gune+](https://gunedigital.eus/) plataforma digitalaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://gunedigital.eus/>). Bertan, eskatutako informazio guztia bete eta proiektuaren memoria, kronograma eta aurrekontua igo ahal izango dira.

Proiektua behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa eta/edo informazio guztia eskatu ahal izango zaie parte hartzen duten erakundeei.

7. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proiektuak diziplina anitzeko batzorde batek ebaluatuko ditu. Batzorde horrek proiektuen kalitatea eta garrantzia bermatuko ditu, eta ez direla lehiatzen sektoreko proiektu aktiboekin. Jarraian aurkeztutako irizpideen arabera, gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira. Proiektuak baztertu egingo dira, baldin eta: proiektuaren berrikuntza mailari buruzko atalean 20 puntu gainditzen ez badituzten, eta artikulua honetan ezarritako balorazio baremoaren arabera guztizko puntuazioan gutxienez 65 puntu lortzen ez badituzte; eta ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan. 2. *eranskinean (Balorazio irizpideen banakapena)* puntuen banaketa espezifikoak ikus daitezke.

- Finantzaketaren % 50 2. motako (taldeak) proiektuetarako da.

Balorazio irizpideak:

1) Proiektuaren berrikuntza maila (40 puntu)

Honako hau baloratuko da: proiektuaren izaera berritzailea; proiektua kokatzen den diziplinaren edo diziplinen barruan zer balio ekarpen egiten duen, eta eskalatu eta erreplikatzeko moduko metodologiak eta prototipoak diseinatzea. Positibotzat joko da, orobat, proposamenaren oinarrian dagoen hausnarketan «inpaktua» aldagaia sartzea.

2) Proiektuaren izaera estrategikoa (20 puntu)

Positiboki baloratuko da proiektua entitatearen I+G+B estrategia batean integratuta edo hari lotuta egotea. Era berean, balorazioak kontuan hartuko du ea proiektua bat datorren trantsizio teknologiko-digitalarekin, energetiko-ingurumenekoarekin eta/edo demografiko-sozialarekin.

3) Hibridazioa eta lankidetzat (15 puntu)

Hibridazioa positiboki baloratuko da; hau da, lankidetzat sektore desberdinen artean sustatzea, balio diferentzial handiagoarekin berritzea ahalbidetzeko. Horrez gain, eragileen arteko lankidetzat baloratuko da (ez baterako lan gisa ulertuta soilik, inplikaturako alde guztien helburuekin bat datorren irtenbide berritzaile gisa baizik), eta arau argiak ezarriko dira lankidetzat eraginkorra lortzeko.

4) Proiektuaren deskribapen teknikoa (15 puntu)

Plangintza, metodologia eta aurrekontu koherenteak. Azken eta tarteko ebaluazioaren adierazleak sartzea. Proiektuak emaitzak zabaltzeko proposamen bat jasotzea baloratuko da.

5) Euskararen erabilera (5 puntu)

Proiektuan euskara erabiltzea.

6) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa txertatzea (5 puntu)

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa txertatzea.

8. ERAKUNDE ONURADUNEN ERANTZUKIZUNAK

Justifikazioa eta jarraipena:

Kasu guztietan (1. eta 2. motako proiektuak), proiektuaren erakunde koordinatzaileak hilabete izango du proiektua amaitzen denetik (eskabidean emandako informazioaren arabera) proiektua justifikatzeko behar den dokumentazio guztia [Gune+ \(https://gunedigital.eus/\)](https://gunedigital.eus/) plataformaren bidez osatzeko. Azken justifikazioaz gain, egindako aurrerapenei buruzko justifikazio memoria bat aurkeztu beharko dute 2022ko abenduan.

Hedapena:

KSiguneraren ekarpena aipatu beharko dute, eta haren logoa sartuko dute proiektuaren hedapenean eta komunikazio elementuetan, baita deialdi honen bitartez finantzatu diren ekintzetan ere.

Aurrekontukoak:

Kostu egokitzat hartuko dira proiektua garatzea zuzenean dakarten horiek. Aurrekontu banakatu bat aurkeztuko dute, eta haren justifikazioa, behar diren beste agiri batzuekin batera, eman beharko dute proiektua amaitu ondoren. [Gune+ \(https://gunedigital.eus/\)](https://gunedigital.eus/) plataforman justifikazio horretarako behar den informazio guztia aurkitu ahal izango da.

Proiektuaren koordinazioari aurrekontuaren % 20 esleituko zaio gehienez, eta proiektua aplikatuko duen erakundearen kargura egongo da (eskatzailea).

Bazkide akademikoari dagokionez, aurrekontuak partida orekatuak jaso beharko ditu, 1. motako proiektuei dagokienez, ikasleen eta irakasleen lana zuzenean aitortzeko.

Proiektuak ezin izango du gain finantzaketarik izan. Proiektuaren aurrekontuak eskatutako laguntza gainditzen badu, zehaztu egin beharko dute zein zati beteko diren deialdi honen bitartez. Komenigarria izango da beste laguntza ekonomiko batzuk izatea, baina eskatutako aurrekontuan zehaztuko dira beti.

Justifikatutako gastuak hasierako aurrekontuan adierazitakoak baino txikiagoak badira, KSIgunek aldeztu aurretik jasotako zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango da.

KSIguneri jakinarazi eta justifikatu behar zaio proiektuko edozein desbideratze, proiektua gauzatzeko epea amaitu baino lehen. Desbideratze horrek behin justifikatuta egonda, jakinarazitako aldaketa onartu behar du KSIgunek, eta laguntzak emateko baldintzak alda daitezke.

LABURPEN TAULA

PROIEKTUAK	ONURADUNAK	EPEAK
Ikerketa aplikatua eta garapen esperimentalak, EAEko kultura eta sormen sektoreen erronkei eta/edo erronka globalei ekarpen positiboa eginez. 1. mota GRALa, MALa (2022an hasita) Irakasgaiko lan kolektiboak (2022/2023 ikasturtea) 2. mota Ikertaldean lanak (2022an hasita, gehienez 6 hilabeteko iraupena)	Gutxienez bi erakunde laguntzaile. Horietako bat, ezinbestean, KSIgunen integratutako ikastegi bat izango da, eta, bestea, EAEko kultura eta sormen industrietan integratutako enpresa edo erakunde bat.	Eskabidea: Deialdia zabalik egongo da argitaratzen denetik 2022ko irailaren 30era arte, edo aurrekontua agortu arte. Ebazpena: 2 hilabete, proiektua aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Justifikazioa: Justifikazio orokorra, proiektua amaitu eta hurrengo hilabetean + tarteko zuritzea 2022ko abenduan.

1. ERANSKINA: Erronka edo ikerketa-esparru posibleak

Jarraian, adibide batzuk adierazita daude deialdi honen xede diren konexio proiektuen ekarpena zer ikerketa esparru edo erronkatara bidera daitekeen edo non koka daitekeen jakiteko.

Erronka sozial globalak:

Talentua:

- Talentua sortzeko, erakartzeko eta atxikitze mekanismoak indartzea, abangoardiako ezagutza sortu, erakarri eta atxikitze, eta horrek, era berean, EAEn kualifikazio handiko ikertzaileen belaunaldi berri bat sortzen lagundu dezan.
- Talentu ikertzaile eta teknologikoaren prestakuntza, gaikuntza eta garapena sustatzea, eta eremu ekonomiko eta sozialen arteko loturak sendotzea. EAeko enpresa sarearekiko lotura nabarmenduko da, konpainiek ezagutza berria erakar dezaten eta I+G eta berrikuntzako proiektu anbiziotsu eta disruptiboagoi ekin diezaieten.
- Gaitasun digitalak hobetzea sustatzea, eta horiek eskuratzeko eta eguneratzeko modua erraztea, batez ere ikerketa eta garapeneko jarduerekin zerikusia duten lanbide profiletan modu intentsiboan aplikatzen dituztenak, eraldaketa digitaleko ingurune sozial disruptibo batean.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren eremuan genero berdintasuna bultzatzea.

Zahartze osasuntsua:

- Zahartzea nola gertatzen den ulertzea, harekin lotutako gaixotasunak atzeratzeko; prebenitzeko, tratatzeko eta sendatzeko moduak.
- Herritarren beharretara egokitutako arreta soziosanitarioa mantentzea.
- Ohitura osasungarriak ezartzen laguntzen duten kultura aldagaitan sakontzea, elikadura osasungarria eta osasuna zaintzeko erantzunkidetasuna barne.
- Zaintza soziosanitarioarekin, ongizatearekin eta kulturaren kontsumoarekin lotutako negozio eredu jasangarriak garatzea.

Ekonomia zirkularra, hiri jasangarria eta ekoberrikuntza kultura eta sormen sektoreetan:

- Material, prozesu, produktu eta zerbitzu aurreratu eta jasangarrietan berritzea.
- Zirkularragoak izango diren negozio eredu berrien sorkuntza sustatzea.
- Produktuen bizitza baliagarria luzatzea.
- Lehengaien kontsumoa eta hondakinen sorkuntza murriztea.
- Elikagai gutxiago alferrik galtzea.
- Plastikoen erabilera efizienteagoa sustatzea.
- Hondakinak kudeatzea eta bigarren mailako lehengaiak erabiltzea.
- Bigarren mailako lehengaien erabilera areagotzea.
- Industriako osagaien eta makinaren trazabilitatea bermatzea, horiek birfabrikatzea, modernizatzea, desmuntatzea eta birziklatzea errazteko.

Kultura eta sormen industriak:

- Kultura zuzenean (ikusizko arteak, arte eszenikoak, musika zuzenean, kultura ondarea):
 - Lankidetzak egitea ekoizpenean arriskua murrizteko; hedapen sareak ezartzea (estatuan eta nazioartean).
 - Publikoak hobeto ezagutzea eta haien jarraipena egitea; fidelizazio tresnak.
 - Artelanak eta artistak sustatzeko eta zabaltzeko estrategiak indartzea.
- Transmedia Kultura (musika erreproduzitua, ikus-entzunezkoak, eduki digitalak, liburua):
 - Koprodukzio-estrategiak indartzea (estatuan eta nazioartean).
 - Kontsumitzaileen ezagutza hobetzea; produktua joeretara egokitzea.

- Transmedia sorkuntzen ikuskera indartzea, jatorrizko euskarritik haratago.
- Diseinuzko manufakturak (artisautza, moda, industria/habitat diseinua):
 - Markaren ospea sendotzea.
 - Online eta offline saltzeko estrategiaren errentagarritasuna optimizatzea; omnikanalitatea.
 - Negozio eta berrikuntza eredu berriak garatzea, eta produktuaren jasagarritasuna hobetzea.
- Habitat eta eraikuntzarako sormen zerbitzuak (arkitektura, barne diseinua, industria/habitat diseinua):
 - Merkatu berriak irekitzeko kontaktuak eta lankidetzak egitea.
 - Merkatu berriak irekitzeko azken merkatuan espezializatzea.
 - EAEko habitat eta eraikuntzako diseinu eta sormenaren sektorearen ikusgarritasuna hobetzea.
- Publizitate eta komunikaziorako sormen zerbitzuak (publizitatea, diseinu grafikoa, hizkuntzaren industriak eta enpresetarako musika, arte eszenikoak eta ikusizko arteak):
 - Markentzako eduki mota berriak garatzea (*branded content, native content...*).
 - Teknologien erabilera garatzea, azken xede publikoarengana hobeto iristeko eta metrikak hobetzeko.
 - Merkatu hobi berriak esploratzea. Ekipoen espezializazioa.
 - Beste sormen sektore batzuekin lankidetzan aritzea (transmedia, zuzenean) komunikazio estrategia berrietarako.
- Beste industria batzuetako berrikuntzarako sormen zerbitzuak (kultura kudeaketa eta bitartekaritza, diseinua –zerbitzuak –, arkitektura, hizkuntzaren industriak, bideojokoak, eduki digitalak, sorkuntza gastronomia):
 - Helburu segmentu nagusien negozioa garatzea tokiko merkatuan eta geografikoki gertu dauden merkatuetan.
 - Berrikuntza proiektuak egitea teknologien metodologietan eta teknologien erabileran.
 - EAEn berrikuntzarako sektore-sormenaren ikusgarritasuna hobetzea.

2. ERANSKINA: Balorazio irizpideen banakapena

1) Proiektuaren berrikuntza maila (40 puntu)

- a) Proiektua berria izatea bere ingurune espezifikoan (15 puntu).
 - i) 11-15 puntu. Proiektuak oso berriak dira beren ingurune espezifikoan.
 - ii) 6-10 puntu. Proiektuak aski berriak dira beren ingurune espezifikoan.
 - iii) 1-5 puntu. Proiektuak ez dira oso berriak beren ingurune espezifikoan.
 - iv) 0 puntu. Berrikuntza mailari ez duten proiektuak.
- b) Balio ekarpena (15 puntu). Bereizteko aukera eta balioa (instrumentala, berezkoa edo soziala) ematearekin lotzen da berrikuntza.
 - i) 11-15 puntu. Balio ekarpen eta erabilgarritasun handiko proiektuak.
 - ii) 6-10 puntu. Balio ekarpen eta erabilgarritasun ertaina duten proiektuak.
 - iii) 1-5 puntu. Balio ekarpen eta erabilgarritasun txikiko proiektuak.
 - iv) 0 puntu. Balio ekarpen eta erabilgarritasunik gabeko proiektuak.
- c) Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna (10 puntu). Proiektu bat erreplikagarria eta/edo transferigarria da baldin eta erreferentzia eredu gisa balio badu sortu duten ez beste testuinguru batean antzeko ekimenak garatzeko, eta ekimen horiek arrakastatsu gertatzeko aukerak badituzte.
 - i) 6-10 puntu. Proiektuak erreplikagarritasun eta/edo transferigarritasun handia du.
 - ii) 1-5 puntu. Proiektuak erreplikagarritasun eta/edo transferigarritasun txikia du.

2) Proiektuaren izaera estrategikoa (20 puntu)

- a) Enpresan I+G+B estrategiarekin bat etortzea (12 puntu).
 - i) 9-12 puntu. Enpresaren I+G+B estrategian erabat integratutako proiektuak.
 - ii) 5-8 puntu. Enpresaren I+G+B estrategiarekin partzialki lotutako proiektuak.
 - iii) 1-4 puntu. Enpresaren I+G+B estrategiarekin lotura txikia duten edo batere loturarik ez duten proiektuak.
- b) Eragina EAEko hiru trantsizioetako batean (8 puntu).
 - i) 6-8 puntu. Hiru trantsizioetako batean eragin handia duten proiektuak.
 - ii) 3-5 puntu. Hiru trantsizioetako batean eragin ertaina duten proiektuak.
 - iii) 1-2 puntu. Hiru trantsizioetako batean eragin txikia duten proiektuak.

3) Hibridazioa eta lankidetza (15 puntu)

- i) Aurkeztutako erantzukizun banaketaren eta lankidetza mekanismoen arabera lankidetza maila (4 puntu).
- ii) Erakunde laguntzaileen kopurua eta lankidetzaren potentziala (4 puntu).
- iii) Proiektuaren zati bat edo proiektu osoa kultura eta sormen erakundean bertan garatzea (4 puntu).
- iv) Diziplinartekotasuna, askotariko sektore eta/edo diziplinen arteko lankidetza (3 puntu).

4) Proiektuaren deskribapen teknikoa (15 puntu)

- i) Plangintza: Lan metodologia argia eta zehaztua, definizio metodologikoa eta kronograma (4 puntu).
- ii) Ebaluazioa: Etengabeko ebaluazio adierazleak (prozesuaren jarraipena) eta espero diren emaitzen xehetasunak (4 puntu).
- iii) Aurrekontu zehaztua: Egitura koherentea. Hala badagokio, finantzaketa eredu eta jarraipena emateko proposamena (4 puntu).

- iv) Hedapena: Proiektuari egokitutako komunikazio eta hedapen proposamena, hedapen elebiduna eta inklusiboa (3 puntu).

5) Euskararen erabilera (5 puntu)

- a) 3-5 puntu. Euskara erabiltzen du proiektuaren jarduera eta/edo edukien garapenean, eta proiektua sustatu eta ezagutarazteko jardueretan euskara erabiltzea bermatzen du.
- b) 1-2 puntu. Euskararen erabilera orekatua bermatzen du proiektua sustatzeko eta ezagutarazteko jardueretan.

6) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa txertatzea (5 puntu)

- a) 3-5 puntu. Genero ikuspegia txertatzen du proiektuaren diseinuan, hedapenean eta/edo ebaluazioan.
- b) 1-2 puntu. Proiektuan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bermatzen du.